

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala**

2018ko azaroaren 6ko 2018/2121 ebazpenaren laburpena, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako kontratazioa egiteko Durangoko udalaren oinarri arautzaileak eta diru-laguntza deialdia 2018an. BDNS (Identif.): 422421.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. — Onuradunak

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntza tokiko enpresek eskatu ahal izango dute, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Lan-egoitza eta jarduera ekonomikoa Durangon izatea.
- Bere zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren kotizazioan egunean egotea.
- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua arautzen dituen kasuetako batean ez egotea.

Bigarrena. — Diru-laguntza ematearen xedea

«Merkatu arrunteko Bizkaiko enpresek kontrata ditzaten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden durangarrak.

Ondorio horietarako, dagokion tokiko erakundearen lurralde-esparruan lantokia eta jarduera ekonomikoa duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak hartuko dira tokiko enpresatzat.»

Hirugarrena. — Oinarri araupetzaileak

2004ko maiatzaren 27an Udalbatzak Durangoko Udaleko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza adostu zuen eta bere testu osoa 2004ko abuztuaren 3ko Bizkaiko Agiri Ofizialean (148 zenbakia) argitaratu zen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Durangoko Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.durango-udala.eus/dirulaguntzak

Laugarrena. — Zenbatekoa

- Kopuru osoa: 75.000,00 euro.
- Aurrekotu partida: 81.2410.47101

Bosgarrena. — Eskariak aurkezteko epea

Eskabide-orriak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean zabalduko da hilabetez.

Durangon, 2018ko azaroaren 6an. — Gizarte Ekintza eta Enplegu arloko presidentea, Pilar Rios Ramos